

## CSICeko presidentea MUko Arrasateko campusean

2009/04/29

Joan zen apirilaren 20an Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan izan ziren Rafael Rodrigo Montero jauna, Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluaren presidentea; M<sup>a</sup> Carmen Peláez Martínez andrea, Ikerketa Teknikoen presidente ordea eta Juan José Damborenea González jauna, Arlo Zientifiko Teknikoko presidente ordearen laguntzailea.

Bilera honen helburua CSIC eta MU artean elkarlanerako bide berriak identifikatzea izan da material berrien eta beraiek fabrikatzeko teknologia berrien inguruan estrategiak partekatzeko eta aldi berean, elkarlan hori burutu dadin, beharrezko mekanismoak antolatzeko.

